



**Travel-Up SL**

## **BALIO PROPOSAMENAK:**

Gure Canvasaren barruan aztertuko dugun lehenengo atala, balio proposamena izango litzateke. Hau da, zer eskainiko dugun edo zein zerbitzu asetuko ditugun azaltzea, gure enpresak bezeroei eskaintzen dizkien onurak biltzen dituena.

Hauek, lehiakideetatik desberdintzeko bezeroarentzat balorea sortzen duten elementuak dira.

Gure enpresa, hizkuntzak ikasten ari diren pertsonen arteko trukeak egiteko agentzia seguru eta eskuragarria da, besteetatik desberdina dena.

Haren balio proposamena, bezeroak diru kopuru handia aurrezte da, beste agentzia batzuekin konparatuz. Gainera, beste agentziak dituzten hainbat bitartekari saihesteko aukera ematen dizu, horrela haiei eman beharreko dirua aurreztuz.

Esan beharra dago, beste agentzia batzuetan honelako programa bat eskaintzen dutela, baina lan orduen truke. Gure agentzian, berriz, bidaiako esperientzian eta hizkuntzaren ikaskuntzan oinarritzen da, izugarriko esperientzia bat lortzeko ostatuagatik ezer ordaindu gabe.

Agentzia honek segurtasuna eskaintzen dizu. Kontrol osoa daukagu gure programako kideetan, honen bidez, trukeak egiterakoan bi pertsonen arteko segurtasuna eskaintzeko aukera dugu. Hau da, erregistratzeko momentuan datu batzuk eskatuko dizkiogu bezero bakoitzari, segurtasun minimo bat emateko.

